



## 2017 SAN ROKE JAIETAKO IX. UMEEN KARTEL LEHIAKETA

### OINARRIAK

- 1.a 6 eta 12 urte arteko edozein haur edo umek parte hartu ahal du lehiaketa honetan, beti eta Laudio udalerriko eskoletan matrikulatuta badago.
- 2.a Lanak izan behar dira argitaragabeak eta alde zuzenetik beste edozein lehiaketan saritu gabekoak.
- 3.a Lanak prestatu eta gauzatzeko joera guztiak eta zein nahi bitarteko tekniko erabili ahal izango dira (marrazkia, pintura, argazkia, collage edo itsatsi-bilduma, e.a.).
- 4.a Artista bakoitzak nahi beste lan aurkez dezake Lehiaketara, baina izenburu ezberdinekin.
- 5.a Kartelaren luze-zabalera: posizio bertikalean, DIN A4 neurrira doitutakoa.
6. Kartelean sartu behar diren testuak hauek dira:

### SANROKEAK 2017 LAUDIO JAIETAN

7.a Kartelak aurkeztu behar dira atze aldean egilearekin kontaktuan edo harremanetan jartzeko telefono zenbakiarekin bakarrik.

8.a Originalak entregatzeko epea amaituko da **2017ko maiatzaren 22 eguneko 14:00etan**.

Hala lanak nola gutun-azalak entregatu edo bidali behar dira Kultura, Kirolak eta Jaietako Arlori.

9.a Aurkeztutako lanak Laudio Udalaren jabetzapean geratuko dira. Beraz, egoki deritzon erabilera eta xedea eman ahal izango die, besteak beste, jendaurrean erakusten jartzea 2017ko abuztuaren 16 eguneko goizean, Herriko Plazan edo egoki adieraziko den beste edozein lekuren batean, Laudio herriko etxeak antolatuko dituen tailerrak dirauten bitartean.

10.a Irabazlearen saria: Laudio Udalak irabazlearentzako sari legez, zera eskainiko du: eskolak ikasleen lanak aurkezten dituen irabazlearen ikasgelarentzako autobus ipiniko euren eskura Zentroko Zuzendariak adieraziko duen egunean txango bat egin ahal izan dezaten 2017 urtea amaitu aurretik; Egile berak lana aurkezten duen kasuetan 250 eurotan baloratutako material didaktikoaren lote bat.

11.a Kartel saritua 2017 San Roke Jaiak iragartzeko gaitzat erabiliko da, hala nola jai egitarauko aurre aldean agertuko da edo Laudio Udal honek kontratuko dituen aldizkari edo



egunkarietako iragarkietan. Udalak ez du zertan erabili beharrik derrigor egilearen izena; hala egileak ezin izango dio kalte-galerarik eskatu.

12.a Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin batera darama bertan zehaztutako baldintza guztiak onartzea eta beren beregi eta espresuki horien mende geratzea.

13.a Deialdi honetan sor edo planteatzen daitezkeen arazo guztiak ebazpena uko Laudio udaleko Kultura, Kirolak eta Jaietako Arloaren eskumen eskusiboa da.

14.a Lehiaketa honen oinarriak jakinaraziko dira ZUIN Udal Informazio Orrian, udal web atarian eta komunikabideen bitartez.

## **KARTEL IRABAZLEA AUKERATZEKO PROZEDURA**

15.a Aukeratzeko prozedurak bi fase izango ditu:

1. Fasea: Epaimahai teknikoak bigarren fasera pasako diren lanak aukeratzeko ditu.
2. Fasea: “Bozken” fasea izenekoan, gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:
  1. Epaimahai teknikoaren bozkak: 50 puntu
  2. Herritarren bozkak: 50 puntu, bozka papereko ala udal web atari bidez

### **LEHEN FASEA**

16.a EPAIMAHAI TEKNIKOAK LANAK ALDEZ AURRETIK AUKERATZEA Laudio Udalak, Herriko Etxeko Udal Iragarkien Taulan erakutsiko den Alkate-udalburutzako Dekretu bidez izendatuko du Epaimahai Teknikoa. Kide izango dira lehiaketaren objektuarekin zerikusia duten 3 pertsona. Epaimahai-burua alkatea bera izango da edo ordezkotza lagatzen dion Zinegotzia; berdinketa kasuan kalitatezko bozka edukiko du. Idazkaria, Kultura Koordinatzailea edo ordezkotza lagatzen dion Teknikaria izango da, hitz egiteko eskumenaz baina bozkarik emateko eskubiderik gabe.

Epaimahai horrek, epe barruan aurkeztutako lanak aztertu, delibero eta gogoeta egin ostean, kalitate, originalitate eta indarrean dauden legeak betetzearen irizpideak ezarriz, bigarren fasera (epaimahai teknikoaren eta herritarren botaziora) pasako diren lanak aukeratzeko ditu. Aukeraketa sistema izango da bozkatuta “lanez lan”, erantzunez “bai” ala “ez” galdera honi: pasa behar al du botazio fasera? Lehiaketa honetako bigarren fasera pasatu ahal izateko epaimahaiko kideen aldeko edo baieztoko botoen %40 baino gehiago lortu behar du lanak.

Epaimahaiak ez badu lanik bat bera ere ez aukeratzeko, lehiaketa hutsik joko da. Lan bakarra aukeratzeko badu, lan horixe izango da irabazlea, botaziora jo beharrik gabe.

**BIGARREN FASEA:**

17.a EPAIMAHAI TEKNIKOAREN BOZKETA BOTAZIOA (50 puntu). Epaimahaikide bakoitzak 12,5 puntu izango ditu, egoki irizten dion moduan banatzeko aukeratutako edozein lanen artean. Epaimahaiak hartutako erabakia horrexetarako idatzitako aktan jasoko da, non lan bakoitzak lortu dituen puntuak azalduko diren.

**18.a HERRITARREN BOTAZIOA (50 puntu).**

**BOTO PAPER BIDEZKO BOTAZIOA.** Epaimahai teknikoak lehen fasean hautatutako lanak Laudioko Kultura Etxean jendaurrean ipiniko dira erakusgai, maiatzaren 29etik ekainaren 4era bitartean, ohiko zabalik dagoen ordutegi barruan. Obra edo lan bakoitzak bere gutun-azalean jasota geraraziko den identifikaziorako zenbaki bat eramango du eta izango atxikita erakusketa aldi osoan zehar.

Maiatzaren 29etik ekainaren 4era bitartean, Kultura Etxeko harrerategian eta egun osoan, zabalik dagoen bitartean, Laudio herriko herritarren botazio faseari ekingo zaio. Horretarako, maiatza hilabetearen amaieran ZUIN aldizkariarekin batera udalerriko etxebizitza guztietako postontzietara banatu diren boto-txartelak erabiliko dira soilik, lehiaketa honetarako eta jaiak iragartzeko kartel lehiaketarako balioko dutenak.

Boto-emaileak, boto-txartel hori beteko du bere iritziz lehiaketa irabazi behar duen kartelaren zenbakiarekin, hala jaietako programa nola haurren lehiaketako iragarki-kartela izateko. Harremanetan jartzeko telefonoa ere adieraziko du, lehiaketa honetan bozketa sustatzeko eskainiko diren opariren bat egokitzen bazaio, harekin harremanetan jarri ahal izateko.

**INTERNET BIDEZKO HERRI BOTAZIOA.** Lehen fasean Epaimahai Teknikoak aukeratutako obrak eta lanak, Laudio udaleko internet atarian erakutsiko dira. Obra edo lan bakoitzak bere gutun-azalean jasota geraraziko den identifikaziorako zenbaki bat eramango du eta izango atxikita erakusketa aldi osoan zehar. Posta elektronikoko bat bidalita bozkatu ahal izango da maiatzaren 29etik ekainaren 4era bitartean, udal web atarian agertuko den estekaren bitartez, adierazi aukeratu duzuen kartelaren zenbakiaz.

Sistema honen bitartez, soilik bozkatu ahal izango dute udalerrian erroldatutako pertsonak eta NAN dutenek, betiere formularioan eskatuko diren baldintzen arabera.

19.a HERRITARREN BOZKETAREN EMAITZA. Bozketa prozesua normaltasunez amaitu bada, jasotako botoak zenbatu egingo dituzte Epaimahai-buruak eta Laudio Udaleko Kultura, Kirolak eta Jaiak Arloko Teknikoak, kartel bakoitzak lortutako boto zenbatekoaren proportziozko eran, guztira eta gehienez ere 50 puntu banatuko dute bozkatutako kartelen artean.

Une horretara arte egindako egintza guztiak horretarako idatziko den aktan jasoko dira eta bertan azalduko dira obra edo lan bakoitzak lortu dituen puntuak.



20.a PUNTU GUZTIAK BATZEA. Bi aktak eskura dituztenean epaimahaiaren eta herritarren bozketari dagozkionak, epaimahaiko presidentek eta Laudio Udaleko Kultura, Kirolak eta Jaiak Arloko teknikariak lanek fase bakoitzean lortu dituzten puntuak zenbatuko dituzte, eta irabazletzat aitortuko dute puntu gehien lortu dituenak. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiko presidentearen kalitatezko botoak ebatziko du.

Une horretara arteko ekimen eta gorabehera guztiak horretarako idatzitako aktan jasoko dira. Aktan lan bakoitzak lortu dituen puntuez gain, lan irabazlearen izenburua, gutun-azaleko zenbakia eta goitizena zehaztuko dira.

21.a Behin akta ofiziala idatzi ostean, boto-txartel guztiak deuseztatu eta desegino dira boto-emaielen datu pertsonalen segurtasuna zaindu, babestu eta jagoteko, arlo horretan indarrean dauden legeak eta arauak betez.

Laudio, 2017ko martxoaren 27a